

DROGETEN

ITTURRI

Ermua eta Mallabiko aldizkaria. 273. zenbakia. 2018ko abendua



Ameriketara joan nintzen...



IRAZABAL
clínica dental



Ainhoa Zulueta
Dokorea

Familiaren Osasuna
Zure familiaren ahoaren osasunaz
arduratzen garelako
Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

f Facebooken: Clínica Dental Irazabal **t** Eta twitterren: @Clinicalrazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio ezin hobeak. **GALDETU**



IRAZABAL
clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Odontologian Lizentziatua.
Euskal Herriko Unibertsitatea.
Unibertsitate Adua Aho Kirurgian,
Periodontzian, inplantologian.
Leongo Unibertsitatea.
Diplomatua Aho Kirurgian.
Bartzelonako Unibertsitatea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.
Hortz-Estetikan Diplomaturia.
Autran Institutua. Bartzelona.
Etengabeko Formakuntza.
New York-eko Unibertsitatea.
Oklusioan Graduondoa.
Anibal Alonso Doktorea.

Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara
Zapatuetan:
10:00etatik **14:00**etara



ESKERRIK ASKO GYRE BAZKIDEEI
BESTE VRTEBETEZ
GYRE ALBOAN IZATEAGATI

ZORIONAK ETA VRTE BERRI ON!



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Amaia Arginzoniz,
Estibalitz González
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Ekhi Velar.

HIZKUNTZ ARDURADUNA:

Alazne Aiestaran.

AZALEKO ARGAZKIA:

Iñaki Olañeta.

LAGUNTZAILEAK:

Juan Carlos Martín,
Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Udal Liburutegia
eta Valentin Mugarza.

ARGAZKIAK:

San Pelaio ikastetxea,
DanoBat,
Estibalitz González,
Clemen Corredera,
Valentin Mugarza,
Aitor González,
Ekhi Velar
eta Iñaki Olañeta.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Piedi Eizagirre,
Ainhoa Garitagoitia
eta Olatz Vidal.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarren ahotik

Gabonak

Aspaldiko Olentzero

Aspaldiko Olentzero,
Olentzero guria (*berriro*).
Ikazkile begi gorri,
nun dok Belengo haur hori?

Aspaldiko Olentzero,
Olentzero guria (*berriro*).
Ermua barriztutzeko
hemen gatoz gu guztiok.

Aspaldiko Olentzero,
Olentzero guria (*berriro*).



(Entzuteko: www.alboka.es)

Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA4

Iñaki Olañeta (AEB)

ELKARRIZKETA5-7

Valentin Mugarza eta Felipe Zelaiala

MALLABIAN ZER?8-9

Angel Zelaiala

MARKOS GIMENO10

Sukram Markus

ERMUAN ZER?14

Euskaraldiaren balorazioa

BOTEPRONTOAN.....15

Ramiro Cid

MOTZEAN.....16-17

Desafixuan txirindularia garaila

IRITZIA18

Ez da nire arazoa

ZORION-AGURRAK19

Saldu, erosi edo agurtu

ANTZINAKOAK.....20

Ermuko eta Mallabiko argazkiak

ESKOLEN TXOKOA.....21

San Pelaio ikastetxeko berriak

URTARRILEKO AGENDA .22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Iñaki Olañeta

Iñaki Olañeta 1950ean jaio zen Ermuan, baina munduan zehar hainbat tokitan bizi eta gero, Las Vegasen (Amerikako Estatu Batuetan, AEB) aurkitu zuen bizitokia. Zesta puntako jokalaria profesionala izan zen eta, erretiratu eta gero, Las Vegaseko kasinoetan egin zuen lana. Orain erretiratuta dago eta familiari eskaintzen dio denbora guztia. EITBk bere historia jaso zuen eta 'Basamortuko argiak' dokumentalean dago ikusgai.

- Zergatik erabaki zenuen Ermutik kanpo joatea?

Nire amak kioskoa zeukan ('La Gloria' izenez ezagutzen zuen jendeak) eta egunkariak saltzen ibili nintzen 16 urte bete arte. Goizetan han egoten nintzen eta arratsaldetan, astean hiru aldiz, Durangora joaten nintzen nire lagun Ascaniorekin zesta puntan jokatzera. 17 urterekin Las Palmasen jokatzeko kontratua eskaini zidaten eta bi urtez egon nintzen han, ondoren, Zaragozan jokatu nuen urtebetez. Gero, Jakarta (Indonesia) jokatzeko eskaintza iritsi zitzaidan eta lau urtez jokatu nuen han. Kontratua amaitu zitzaidanean Ermura etorri nintzen hilabete batzuk pasatzera, baina Las


Vegasen jokatzeko kontratua eskaini zidaten eta 1975etik 1980ra AEBn jokatu nuen.

- Zure kirol ibilbidea amaitzean han geratzea erabaki zenuen. Zergatik?

1976an ezkondu egin nintzen eta nire alaba jaio zen. Beraz, etxea erosi eta familia osatu nuen. Kontratua amaitu zitzaidanean erretiratzea erabaki nuen, adin horrekin askoz gehiago ezingo nuelako jokatu. Ez neukan hara eta hona mugitzen ibiltzeko gogorik, horretarako etxea saldu behar nuelako, eta hemen geratzea erabaki nuen.

- Pilota utzi eta gero, erraza izan zen lana aurkitzea?

Hainbat pilotari erretiratu *croupier* edo *dealer* bezala



zenbiltzan lanean hemen, eta Markinako nire lagun Jesús Goikoetxeari galdetu nion lana aurkitzea erraza ote zen. "21era arte kontatzen dakizu? Ba nahikoa da orduan", erantzun zidan barrezka. Bere etxera joan nintzen eta kartak banatzen, azkar zenbatzen eta kartak buruz ikasten erakutsi zidan. 1980ko martxoan Four Queens kasinora eraman ninduen, buruzagia bere laguna zelako eta, baimen guztiak lortu eta gero, uniformeak entregatu eta berehala hasi nintzen lanean.

- Nola moldatu zinen *croupier* moduan?

Mundu berria zen niretzat. Nire ingelera ez zen oso ona eta oso urduri eta izututa nengoen hasieran. Jendeak galderak egiten zizkidan eta hala nola azaltzen nien eurek jakin nahi zutena. Hori bai, irribarre beti ahoan!

- Noiz arte egon zinen han lanean?

19 urtez. Venetian kasinoa zabaldu zen, bertan lan egiteko eskaera egin nuen eta onartu egin zidaten. 1999ko mar-

txoaren 3an hasi nintzen, inauguratu zen egunean, eta egun handia izan zen niretzat, ez baita erraza *street-eko* kasino berri batean hastea. 2007ko abenduaren 30ean Palazzo kasinoa zabaldu zuten eta, konpainia berekoa denez, han lan egin nahi nuen galdetu zidaten. Elkarren alboan daude eta denda eleganteak dauden korridore eder batetik pasatuz joaten zara kasino batetik bestera. Nik baietz erantzun nien, noski, eta 2017ko abuztuaren 6ra arte egin nuen lan han, erretiratu arte.

- Zer moduz erretiroa?

Urtebete daramat jubilatuta eta familiarekin pasatzen dut denbora gehiena. Ilbekin mendira joatea gustatzen zait, lakura, eta sukaldatzea ere asko gustatzen zait.

- Ermura etorri zara denbora guzti honetan?

Abuztuan egon nintzen albarekin anaia José Luis 'Tote', arreba Olga, koinata Herme, iloba Mari Glori eta hainbat lagun bisitatzen.

Ekhi Velar



Iñaki Olañeta (behean) Las Palmasen jokatu zuenean.



Valentin Mugarza eta Felipe Zelaieta:

“Emiliori liburua gustatu zaio, hori da garrantzitsuena”

‘Gure melodia’ izenburua dauka Valentin Mugarza, Felipe Zelaieta eta Mikel Zelaietak aurkeztu berri duten liburua. Emilio Praderaren omenez egindako liburua da eta Mallabiko musikariaren bizitza ere jorratzen da bertan. Aurkezpena Kontzejuzarran egin zen, Emilio maisu izan zen tokian. Hurrengo egunean Mallabiko koruak kontzertua eskaini zuen eta lehenengo abestia Emiliok jo zuen organoan, ‘Mallabiko ama’. Mallabiko udalak finantzatu du proiektua eta herriko etxe guztietan banatuko da doan. Ermuko liburutegian ere ale batzuk jarri dituzte, baina liburua erosteko egileekin kontaktatu besterik ez dago. Grabatutako bideoak, gainera, YouTuben daude ikusgai.

- **Nola abiatu zen liburua idazteko ideia?**

Felipe: Aspalditik neukan Emilio Praderari buruzko liburua idazteko gogo. Mallabiko mezetan Emiliorenak diren abestiak kantatzen direla ikusten nuen eta nire buruari zera esaten nion: "Emilio joango da, inork ez du erreleboa hartuko eta berak egindakoa ahaztuta geratuko da". Orduan, berak egindakoa jasotzea zen nire asmoa. Joan den urtean zerbait egiteko denbora pixka bat eduki nuen eta horrela hasi nintzen. Elkarrizketa batzuk egin nituen, Emiliorekin eta bere ingurukoekin, eta gero Valentinekin batu nintzen. Elkarrizketak grabatzeko eta argazkiak ateratzeko proposamena egin zuen Valentinek, politagoa eta osoagoa izango zelako, eta biok batera gauzatu dugu proiektua..

- **Beraz, hasierako asmoa liburua idaztea zen bakarririk?**

F: Bai, liburutxo bat, zerbait txikia, baina aurrera egin ahala aldatzen joan da ideia.

- **Zergatik Emilio Pradera?**

F: 16 urte zituenetik Mallabiko elizan organoa jo du mezetan domekero, jai egunero eta hileta-elizkizun guztietan. Gaur egun 92 urte ditu, beraz, pentsa. Bere aita organista eta txistularia zen eta, gazte hil zenez, bere bidea jarraitzeko eskatu

zion Emiliori. Nik ez dut Emilio txistulari moduan ezagutu, baina Mallabiko txistulari ofiziala izan zen. Ermitera joaten zen, organoa jotzen zuen, korua zuzendu, mezan jo, meza ostean txistua hartu eta erromeria egiten zuen, bazkalduta eta, ondoren, etxez etxe kalejira egiten zuen. Bada zerbait! Gure sasoiokoei pentsatu dugu, baina baita gure gurasoek ere.

Valentin: Orain dela pare bat urte elizari baimena eskatu nion meza baten Emilio organoa jotzen grabatzeko, pentsatzen nuelako oso garrantzitsua zela hori jasotzea. Ez dakit oinordekorik egongo den, baina momentuz azkenengo organista izango delako. Meza guztia grabatu nuen eta demasa izan zen organoa jotzen ikustea. Hankekin, eskuekin... izugarritzko abilezia!


- **Emiliok nola jaso zuen zuen proposamena?**

F: Ondo! Ordurako gauza askorekin ez zen akordatzen eta azken urtean okerrera egin du. Zorionez, berarekin egoteko aukera izan dugu, beranduegi izan baino lehen.

V: Emilio elkarrizketatu genuenean kantu batzuk abestu zituen eta kuriosoa izan zen, polita.

- **Liburua nola dago banatuta?**

F: Lehenik Emilioren bizi-tza kontatzen dugu eta, ge-



ro, bere arreba, Ermutik Mallabira eramaten duen taxista, bere ikasleak izandakoak eta inguruko hainbat lagunek kontatutako istorioak batzen ditugu. Beste atal bat Mendatari buruzkoa da. Izan ere, ezkondu aurretik Emilio irakaslea izan zen eta Mendatan egon zen lau urtez. Han egon zen bitartean organista moduan ere ibili zen, korua sortu zuen eta koruak aktibo jarraitzen du gaur egun. Orduan, Mendatarien testigantzak ere jaso ditugu. Mendatari 15 lagun etorri ziren liburuaren aurkezpena, Emiliok han utzi zuen arrastoaren seinale. Asko maite dute.

- **Nolakoa izan zen liburua-
ren aurkezpena?**

V: Jende asko etorri zen, 50 lagun inguru. Emilio ere etorri ahal izan zen eta hunkigarria izan zen.

- **Organoa jotzeaz gain, abestiak sortzen zituen, ezta?**

F: 'Mallabiko ama' abestia sortu zuen eta Mallabiko ia ermita guztiei ere abestia egin zien. Hori guztia galdu egin da, baina nire amak oraindik gogoratzen ditu abesti horiek. Liburuarekin batera jarri dugun diskoan abesti horiek batu ditugu, lau andrazkok Emilioren abestiak kantatu dituztelako proiektu honetarako.

- **Mallabia eta Mendatari gain, beste toki batzuetan jo izan du Emilioko?**

F: Txistuarekin ibiliko zen hara eta hona, baina Ermuan ere jotzen zuen organoa. Ermuan zegoen organista joan egin zen eta berak hartu zuen tokia. Bestetik, Ermuan egon zen koru bat nahiko ospetsua, 'Abeslariak', orain dela urte asko

"Liburuaren B aurpegia kaleratu behar dugu pasarte pikanteenekin"



**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apaindegi bat
baino gehiago!!*

 Egokitutako burua
garbitzeko konketa

943 17 28 09 · Goienkale 12

Caperos

Pinboak · Razioak · Kaxolak · Plater konbinatuak · Ogitarkeoak
Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 · 636 549 154

desagertu zena, eta hor ere ibili zen. 'Abeslariak' desagertzean Zaldibarreko korura joan zen.

- *Liburuan elkarrizketatu dituzuen lagunek gustura hartu dute parte?*

V: Oso. Eliza inguruan mugitzen den jendea eta bere inguruko jendeak emozio

ukitu batekin gogoratzen dute Emiliorekin bizitakoa.

F: Jende askok zeukan Emilioren omenez zerbaitegiteko gogo eta aurkezpeneargi ikusi zen. Izan ere, mezetara joaten ez zen jendea ere hurbildu zen, Emiliorekiko maitasun handia zutelako.



“Hankekin, eskuekin... Emiliok izugarritzko abilezia du organoarekin”

V: Jendeak, gainera, argazki zaharrak bidali dizkigu. Kolaborazio ona jaso dugu.

- *Asko kostatu zaizue proiektua burutzea?*

V: Nire lana errazena izan da, bideoa grabatzea. Bideoen edizioa Mikelek egin du, Feliperen semeak. Bestetik, elkarrizketa batzuetan gauza kurioso bat gertatu zitzaigun. Hizlariak euren istorioa kontatzen zuten eta guk esaten genien liburuan jasoko genuela esandakoa, eta euren “ez, ez, ez”. Guretzat pasarte bitxi edo pikanteak direnak ez zuten jasotzerik nahi. Aspaldiko kontuak ziren, baina ez zuten euren izena hor agertzea nahi eta ez ditugu sartu. Liburuaren B aurpegia kalera-tu behar dugu! (barreak)

- *Kontatu daitekeen bitxitasunik?*

V: Baten batekin kontatzen du nola eramaten zuten harmoniuma San Antonioko ermitatik Artetara Emiliok jo zezan. Bizkarrean eramaten zuten, daukan pisuarekin.

F: Anekdotak politak daude liburuan. Lehen, adibidez,

ez da gaur egun moduan. Orain ermitetara kotxean joaten zara eta berehala bueltatu, baina lehen egun pasa joaten zen jendea ermitara. Han bazkaldu, kopa bat edan eta buelta oinez egiten zuen jendeak, erdi mozkortuta.

- *Emaitzarekin gustura geratu zarete?*

F: Bai! Dena hain ondo irten da, beldurra ematen duela. Argitaratu aurretik beti uste duzu baten bati ez zaiola gustatuko edo zerbaitek huts egingo duela, baina momentuz dena ondo joan da. Liburua aurkeztu aurretik liburuan parte hartu dugun guztiak batu ginen Valentinen txokoan, baita Emilio eta bere emaztea ere, eta liburua erakutsi genien. Ondo egon zen, pozik geratu zirelako.

- *Liburua eginda, bakean geratu zarete?*

F: Ni behintzat pozik geratu naiz.

V: Emiliori eta irakurri duen jendeari gustatu zaio, eta hori da garrantzitsua.

Ekhi Velar

uriarte asesores ✓

Aholkularitza fiskala
eta lege aholkularitza

Komentukoa 3 behea · Tel. 943 179 040 · Faxa 943 179 197
48260 · Ermua · Bizkaia



Modas Candé
Candelaria Rueda

Diputación, 12 | 48260 ERMUA Bizkaia
T 665 703 904
modascande@gmail.com

ZERMÍK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMÍK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragón (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Angel Zelaieta, idazlea eta irakaslea:

“Hanbreko tabernako mostradorean jasotako kultura islatu nuen Anaitasuna aldizkarian”

1953ko ekainetik 1982ko apirilera argitaratu zen aldizkaria izan zen Anaitasuna. Euskal prentsaren erreferentea, Bilbon zuen egoitza eta euskal kulturarentzat garrantzitsuak izan diren pertsonaia askoren idatzi eta kolaborazioak jaso zituen bere orrietan. Angel Zelaieta mallabitarrak hiru urtez zuzendu zuen Anaitasuna, 1969 urtetik 1972ra, eta orain dela aste batzuk Rikardo Arregi saria jaso zuen Andoainen aldizkariaren izenean.

- *Anaitasuna aldizkariari emandako Rikardo Arregi saria jaso zenuen orain dela aste batzuk. Nolako ekitaldia izan zen?*

Zoriak nahi izan zuen ni Anaitasuna aldizkariko zuzendaria izatea eta, tira, polita da bere izenean Rikardo Arregi saria jasotzea. Oso ekitaldi ederra izan zen, txukuna. Goi-administrazio-ko ekitaldia izan zela esango nuke. Muntaia handia prestatu zuten. Jendearentzat izendatutako aulkiak egon ziren, besteak beste.

- *Nolako aldizkaria izan zen Anaitasuna?*

Frantziskotarren aldizkaria zen, baina nire denboran aldizkari zibila izan zen. Interesgarria gertatu zela uste dut. Euskararen teknikaren aldetik oso pertsona indartsu batek egin zuen lana han, Imanol Berriatuak. Egunotan euskara batua dela eta gaiak agertu dira baina, zoritxarrez, ez da agertzen Imanol Berriatuak kontu horretan guztian izan zuen ardua. Anaitasuna guztia zu-

zentzen zuen. Euskara batu- rantz egiteko bere indikazioak agertzen dira eta aipagarria da. Bestetik, Ermua (industriaren inguruko artikulua) eta Mallabia (Euskal gaua) ere agertu izan ohi ziren aldizkarian. Hanbreko tabernako mostradorean jasotako kultura islatu nuen, bertan jende ezberdina jasotzen genuelako, eta uste dut hori islatzen zuela Anaitasunak notiziak eta gaiak lantzeko orduan.

- *Euskararentzat eta sasoi hartako gizartearentzat nolako garrantzia izan zuen Anaitasunak?*

Handia. Alde batetik, euskara batuari begira Imanol Berriatuaren presentzia nabaria da. Gabriel Arestik behin zera esan zuen. “Imanol zuzenketa bi egin dizkit. Bat, adibidez, ‘eskeini’ idatzi eta ‘eskaini’ zuzendu dit”. Tendentzia herritarra zeukan aldizkaria zen, popularra eta gaurkoa.

- *Zuzendari moduan zein zeregin zenuen aldizkarian?*

Angel Zelaieta Rikardo Arregi saria jasotzen (Argia)



Batetik, zuzendariaren lana, hau da, aldizkaria zuzentzea. Eta bestetik, alde ekonomikoa lantzea.

- *Euskara batuaren sorkuntzan garrantzi handia izan zuen bilera egin zen Ermuan 1968an eta zuk zerikusia izan zenuen bilera hori gauatzeko orduan. Zertan zehazki?*

Nire ‘mobida’ izan zen hura. Euskara batuaren sorreraren inguruan bilerak egin genituen sasoi hartan eta Aresti eta horiei esan

nien hurrengo bilera Hanbren egin behar genuela. Hanbre Ermua da praktikan. Donostia eta Bilbo artean dagoela argudiatu nuen, Hanbreko taberna aurrean autoak aparkatzeko tokiak zeudela eta jatetxean baze-goela tokia gu batzartzeko. Orduan, han egin genuen bilera. Bernardo Atxagak ere gertaera hori komentatzen du artikuluren batean.

- *Zer jorratu zenuen bilera hartan?*

Bilera garrantzitsua izan

Komunitateak

San Pelayo

Aholkularitza
juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua



ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

zen, euskara batuaren sorrera bera garrantzitsua zelako. Sasoi hartan indar handia zuten gaiak landu genituen.

- Euskara batuak euskararen biziraupena ekarri zuen?

Ez dakit horrenbestekoa den, baina euskara batua beharrezkoa zen, duda barik. Intelektualki, hizkuntzaren literatura aldetik eta abar euskara batua gauza erreala izan zen. Anaitasunak indar handia egin zuela euskara batuaren alde uste dut.

- Gabriel Arestiren laguna zinen, hurbiletik ezagutu zenuen eta haren biografia idatzi ere. Nolako pertsona zen Gabriel Aresti?

Anekdotak bat kontatuko dizut. Behin Eibarrrera joan nintzen Juan San Martinengana. Ni abade izateko bidean negoen eta San Martin ezagutzeko gogoia nuen, klerikoa izan barik, laikoa, kultura eta zibila zelako. Berarekin gelditu nintzen, baina hitzartutako orduetik pixkat berandu ailegatu nintzen eta barruan... Gabriel Aresti! Han ezagutu nuen. "Funeraltxo bat eduki dut eta apur bat atzeratu egin naiz", esan nien. Eta Gabrielelek: "Gazteren bat igual hil da". Eta nik: "Ez, Mallabian esaten den moduan, 'hiltzeko lotsarik ez du eduki, adinean aurrera zihoalako". Barrez erantzun zuen berak!

- Abade kontuak aipatu dituzenez, nola gogoratzen dituzu abade izandako urteak?

Umea nintzela ospakizun handia egiten zen 'Erramu domekan' eta orduko umeak erramu txortarekin joaten ginen elizara, zein edo zeinek handiagoa eramateko gogoarekin. Ez dut ondo gogoratzen, baina Etxebarriko Vicente esanda, etxean ganorabako erramua egin omen zidaten eta esan omen nuen: "etxetik alde egingo dut eta abade joango naiz!". Abade izateko azterketa egin behar

zen orduan eta gainditu egin nuenean, Emilio Praderak karta bidali zidan Hanbrera zorionak ematen. 1963an egin nintzen abade. Uste dut ni izan nintzela abadetza utzi eta sekularizatu zen lehena, paperak ofizialki eginda Erroman, publikoki. Eta gero ezkondu egin nintzen. Ihes egin barik ofizialki egin nuen guztia.

- Zergatik utzi zenuen abadetza?

Uste dut arrazoi nagusia neska bat ezagutzea izan zela. Gainera, Mallabiko erregistroan bataioaren agiria eskatu nuen eta ohar batean latinez jartzen du gauza gehiago jakin nahi izanez gero, apezpikutzaren baimena behar dela. Subdiakono egin nintzela ipintzen du, hortik aurrerakoak isildu egiten ditu.

- Irakaslea ere izan zara urte askoan Lauro ikastolan. Zer utzi dizu irakaskuntzak?

Niretzat esperientzia polita izaten da kalean nabilenean antzinako ikasleak ni ezagutzea. Lehengoan neska batek kalean gelditu eta esan zidan: "Ni zure ikaslea izan nintzen, nire abizena Elorriaga da eta zuk Elorrixa esaten zenidan". Pozgarria izaten da gogoratzen nautela ikustea. "Zuk latina ematen zenidan", esan zidan beste batek, "eta orain nik ematen dut latina". Momentuz ez dut madarikaziorik entzun!

- Orain erretiratuta zaude, baina geldirik edo mila saltsatan?

Alaba Osakidetzan dago Donostian eta behin mediku batekin egon eta esan zidan: "Badakizu medikuak zer esan dizun? Hiru aholku: aktibitate fisikoa, aktibitate soziala eta aktibitate kulturala". Bat baino gehiagori gomendatu diot gauza bera eta erantzun onak jaso ditut. Gauza batean edo bestean jarduten dut oraindik.

Ekhi Velar

LONGAKO ANDRAK EGUTEGI BATEKO AZALEAN

Nekazaritza eta itsasertz sus-tapenerako Hazi eta Eusko Label erakundeek urtero antolatutako argazki lehiaketaren aurtengo gaia emakumeak landa eta arrantza eremuan izan da. Tradizioz gizonenak kontsideratzen diren esparru horietan emakumeak ere badaudela eta beraien lana eta presentzia bistartzeko ildoari jarraituz, hainbat lan aurkeztu ziren eta Gema Arrugaeta argazkilaria ordiziarraren bilduma artistikoa izan zen irabazle. Hilabete bakoitzeko emakume bat agertzen den egutegiaren azalerako, Longa Nagusi baserriko hiru belau-naldien erretratua izan da aukeratu: euren etxaurrean erretratatu, Santa Meabebazterretxea, Irune Irazola eta Ainitze Antxia, zaldi batez lagunduta. Norbaitek aleren bat eskuratu nahi ezker, Longan oraindik badituzte banaka batzuk.



FUB Mediku psikiatra
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika

Fernando Urizar Barandiaran

Ego gain, 18-1A. EIBAR. Tel: 615 71 54 04
Bailen kalea, 9-1 ezk. BILBO. Tel: 94 416 49 06
furizar1@yahoo.com

URRETA burdindenda

- * Etxea
- * Giltzak
- * Tresneria
- * Sarrailagintza
- * Brikolajea
- * Kit altzariak
- * Enrailak

Zeharkalea 8 Tel: 943 17 65 61 ERMOUA

ZK

ZUZENBIDE KONTUAK
Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

SEHIGA
PROTECCION LABORAL
PLAN BABESERAKO
ORDURA

Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

Markos Gimenori agurra



Palindromoak egiteko dohainagatik, hizkuntzari perra eta gatza ateratzeko abileziagatik, diseinu grafiko koloretsu eta guztiz dibertigarrien sortzaile izateagatik, euretako asko ikono bihurtuak gaur egun... horiengatik eta baita, zelan ez, bere hitz-joko harri-garri, abestien letra Dantzutgarri, antzerki sckech barregarri eta sare sozialetako bere aipu aipagarri, horiengatik ere izango da gogoratua Markos Gimeno Vesga ermuarra. The Pepes, Julio Kageta, Dantzut, P.A.M taldeetako baxujole, letragile eta abeslari, antzerkilari, palindromogile, maite-matikari, idazle, Olentzero, marrazkilari, blogari, diseinatzaile grafiko... azken finean, sortzaile eta esperimentatzaile nekaezin eta polifazetikoa.

Merkatu plazan egin zitzaion agur ekitaldia: hunkigarria, jendetsua, gogoragarria... antzezlan, musikaz eta batez ere berbaz edertua. Ehunka lagun batu ziren bertan eta guztien artean bildutako gauzatxoekin Markosen ibilbide pertsonal eta artistikoaren erakusketak antologikoa osatu zen: palindromoen postalak, kartelak, diskoak, liburuak, argazkiak, abestien letrak, txapak, pegatinak, elkarrizketak, bere marrazki eta hitz jokoekin serigrafiatutako kamisetak, lagunen olerkiak... Markos bera eta MarkoSukraM artista oparora ezagutzeko aukera paregabea! Ero maite Beti amorE, Markos!



Merkatu plazan egin zitzaion agur ekitaldian, P.A.Meko taldekideak oholtzan (Clemen Corredera)

esanikerruzegibat
tabigezurtekinase

zerorajasoa

Estibalitz
González

Markosen palindromo hedatuenetako, atzetik aurrera eta aurretik atzera irakurri daiteken esanguraz betetako esaldia.



IZASKUN TXURRUKA



Goienkale 9 Bajo
48260 Ermua Bizkaia

94 317 66 90

peluqueriaizaskun@gmail.com
peluqueriaizaskun.wordpress.com

Pub SCORPIO



Zubiaurre, 21
ERMUA

solozabal tabakoak



torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33



optika
ITZE

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEN KONTROLAK
✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7 Tfnoa. 943 17 46 51

GABONETAKO EROSKETA GIDA

Kokko

f Kokko
Zubiaurre 29, behea
48260 ERMUA (Bizkaia) Tel. 943 25 46 61

quetzal
[arropa, bitxiak, opariak...]

Zubiaurre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065
www.quetzalmoda.com

Bitxi-denda
Erloju-denda

Senén
1978

Tailer propioa

*Diseinuak eta kalitateak
bereizten gaituzte*

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA. Webgunea: joyeriasenen.com - Emaila: joyeriasenen@gmail.com

IZARBI

Zubiaurre 23 - 48260 Ermua - 946 590 140
f Izarbi Ermua

EZ GALDU
INDIZ
IZARBIREN
ARGIA
EGUBERRI ONI!

Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

IZAGIRRE

Calvin Klein
Punto Blanco
DTM
Guess
Playtex
Tommy Hilfiger
Freya...


Komentukua kalea 2 48260 Ermua - Bizkaia 943 170 277

**ZAPA
TXIKI**

C/ Zubiaurre, 20 - ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

 **Bainugelen erakusketa**
943 17 15 56

Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

PERTSIANAK

 **ORBE**
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tailerra:
Zearreko Buella 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXE-BIRGAITZEAK

 **BERRITZE LANAK**
ZURE ERAIKINEAN
Ez dakizu nondik hasi?
GURE LANTALDE TEKNIKOK
LAGUNDUKO DIZU

ZUK ERABAKI

www.spara.es
info@spara.es
943 17 70 57

IZARRA CENTRE Eraikina Zeharkalea, 36, 3^{er} 48260 Ermua - Bizkaia

ETXETRESNAK

 **Egaña**

ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA

Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

 **BETA**

ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak
- Kalefakzioa
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazio, 13 **943 17 65 25**
 689 23 31 71

ERROTULAZIOA

 **ROTEK**
rótulos

- Argi errotuloak
- Autoendako errotuloak
- Barne errotulazioa
- Irudi korporatiboa
- Neoia
- Inpresio digitala formato handian

Goitondo behekoa industrialdea
C-1 partzela, 5 behea

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Matrikula zabalik

Ikastaroa urtarriletik ekainera

TALDEAK MAILAK ETA ORDUTEGIAK

9:30-11:30 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	10:30-12:30 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	16:00-18:00 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	18:15-20:15 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA	18:15-20:15 ASTELEHENA ASTEARTEA OSTEGUNA
B2 MAILA	A2 MAILA	B1 MAILA	A2 MAILA	B2 MAILA
C1 MAILA	B1 MAILA	B2 MAILA	B1 MAILA	C1 MAILA

HABEren AZTERKETAK MAIATZEAN

A1eko, A2ko eta B1eko azterketak euskaltegian

Langabetuek prezio erdia

ERMUKO UDAL EUSKALTEGIA

Teresa Murga Eraikina
Goienkale z/g 2. solairua

Tel: 943170925

euskaltegia@udalermua.net

Hamaika egun, mila lagun

Ermuko Euskaltzaleen Sarea oso pozik agertu da Euskaraldiak herrian izan duen harrerarekin. Aurreikuspen guztiak gainditu ziren, eta ariketa sozialak iraun zituen egunetan, eta azaroaren 23an eta abenduaren 3an egin ziren mintzodromoetan giro ederra sortu zen. Amaitu dira hizkuntza ohiturak astindu dituzten hamaika egunak, baina erronkak martxan jarraitzen du.

La mila lagunek hartu zuten parte azaroaren 23tik abenduaren 3ra egin zen Euskaraldian, 948 lagunek hain zuzen ere. Horieta-
tik 605 Ahobiziak izan ziren eta 343 Belarriprestak. “Ez genuen espero hainbeste jendek parte hartzea, 500 lagun inguru animatuko zirela pentsatzen genuen eta polita

izan da herritarren erantzuna ikustea”, esan digute Ermuko Euskaltzaleen Saretik. “Ez dakigu Euskaraldiak herrian zein eragin izango duen, baina agerian jarri da Ermuan jendeak euskararekiko jarra positiboa duela eta hizkuntza ohiturak aldatu nahi dituela”.

Hamaika egun berezi bizi izan ziren Ermuan Euskaraldiarekin eta oraindik ariketa sozialaren hondarrak gertzen dira. Izan ere, Euskaraldia geratzeko etorri da, egun horietan eragindakoak hizkuntza ohiturak aldatzea duelako helburu. “Bi jarrera aldaketa ikusi ahal izan ziren. Batetik, euskaldun zaharrek pazientzia gehiagorekin jarduten dute euskaraz hain ondo ez dakitenekin. Ireki egin



direra esan daiteke. Eta bestetik, euskaraz hain ondo ez dakitenak euskaraz egitera ausartu dira”.

Azaroaren 23an eta abenduaren 3an bi mintzodromo antolatu ziren euskaraz berba egiteko guneak sortzeko asmoz. Abenduaren 1ean, bestetik, egun berezia ospatu zen herrian. Ermuan Kantuan, argazki jendetsua, kantu bazkaria, Maskaradun DJ-a... hainbat ekintza egin ziren eta jendearen erantzuna bikaina izan zen. “Giro ederra sortu zen. Jende asko animatu zen eta oso ondo pasatu genuen”, diote Ermuko Euskaltzaleen Saretik. Gainera, egun batzuk lehenago Gorka Gonzalezek Euskaraldiarekin

zerikusia duen murala egin zuen Abeletxe kalean eta harrera ona izan du jendearen artean. Euskaraldiak ondorio positiboak utzi ditu, baina aurretik lan handia egin du Ermuko Euskaltzaleen Sareak. “Orain dela urtebete hasi ginen Euskaraldiaren inguruko guztia prestatzen. Bileras asko egin ditugu, prozesua luzea izan bada ere, pozgarria izan da elkarte askotako jendea nola mugitu den ikustea”.

Dagoeneko ez dago Euskaraldian aukeratutako rola zehazten duen txapa soinean eraman beharrik, baina Euskaraldiko jarrera mantentzeko eskaera egiten dute Ermuko Euskaltzaleen Saretik.

Ekhi Velar



enolimp
GARBIKETA ZERBITZUAK

Tel. 618 89 29 60 - 620 13 65 23
E-maila. enolimp@hotmail.com
48620 Ermua (Bizkaia)

Atariak - Bulegoak - Lokal komertzialak - Enpresak
Obra amaiera eta erreformak

www.enolimp.es



Horacio Decoración
TAPIZERIA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

esanline



846 080 010

Cardenal Orbe Plazan, 06 - Ermua

esanline.es



Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g - 943030527



CITROËN

AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, 18 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

R A M I R O C I D

- **Erretiroa noiz iritsiko zain?**
Bai, biharkoa da nire azken laneguna.

- **Jubilatzeko gogoz?**
Ez, bai zera! (dio txantxetan) 37 urte egin ditut Udalean lanean eta aurretik tailer batean egin nuen lan. 40 urte baino gehiago kotizatu dut, beraz, bada erretiratzeko garaia.

- **Denbora betetzeko planak egin dituzu?**

Nire emaztea joan den astean jubilatzen zen, beraz, elkarrekin gozatzeko denbora edukiko dugu. Gainera, kirola gustuko dut eta Irulitxa fanfarreko kidea naiz. Ez naiz aspertuko.

- **Nola hasi zinen musika munduan?**

Nagusi hasi nintzen. Kirol asko egiten nuen, baina belau-neko eta bizkarreko mina neukanez, kirola utzi eta musikarekin hasi nintzen. Musika Eskolan bi urte egin nituen, instrumentua ikasi nuen eta Irulitxan sartu nintzen. Tronpetarekin hasi nintzen, baina Irulitxan saxofonistak behar zituztela esan zidaten eta saxoa hartu nuen.

- **Arlo elektrikoari begira, Ermua asko aldatu da azken 37 urteetan?**

Bai, asko hazi da. Hasi nintzenez, 1981an, herri txikia zen eta ni bakarrik nengoen lanean, baina eramangarria zen. Gaur egun, ordea, okerrago da, nirekin 20 urtetik gora lan egin zuen lankidea jubilatzen zelako eta bakarrik



Ermuko elektrizitatearen mantenua bere esku egon da 37 urtetan zehar, baina lan-tresnak utzi eta merezitako atsedena hartuko du orain. Elkarrizketa hau egin zen eta hurrengo egunean oporrak hartu zituen Ramirok, eta bueltan erretiroa hasiko du. Ez du uste lana faltan botako duenik. "Ahal den guztia egingo dut horrela izateko", dio pozik.

geratu nintzelako. Herri handiegia da elektrizitatearen mantenuaz arduratu behar den pertsona bakarrarentzat.

- **Erreleborrik edukiko duzu?**

Gaur egun ez dago zehaztuta nork hartuko duen erreleboa. Hilabete batzuetarako kontratua duten bi lagun daude, baina finkorik ez. Urterik zabalduko da nire

tokia hartzeko lan-poltsa, baina onena izango litzateke nirekin lan egin izana lanbidearen nondik norakoak eza gutzeko.

- **Zer ikasi zenuen?**

Batxilergoa apaizekin eta, gero, Armeria Eskolan maisutza ikasi nuen.

- **Ermua eta ermuarrak ondo ezagutzeko aukera eman dizu lanbideak?**

Kalean lan egiteak hori dauka. Pentsa, sei alkate ezberdin ezagutu ditut Ermuan!

- **Alkateen artean aldea nabaritzen zenuen lanean?**

Bai. Elektrizitatearen mantenuaz arduratzeaz gain, enpresa-batzordeko kidea nintzen eta borrokak ez ziren berdinak izaten alkate batekin edo bestearekin. Azken aroa oparagoa izan da, beti geneukan norekin negoziatu, baina aurrekoak gogorragoak izan ziren.

- **Zeintzuk izan dira lan gogorrenak?**

Lana ondo antolatzen baduzu eta metodikoa bazara, matxurak buruz ezagutzen dituzu. Lan nekagarrienak kultura ekitaldiak dira, gauza asko prestatu behar direlako.

- **Lanean ezustekorik izan duzu noizbait?**

Bai, eta ez txinpartak bakarrik. Bi istripu izan ditut eta, kasualitatez, azken hiru urteetan gertatu dira. Lehenengoan Gabonetako argiak kentzen eskaileratik erori nintzen, farola bati lotuta nengoelako eta farola erori zelako. Bigarren istripuak ere Gabonetako argiekin du zerikusia. Sasaki bat erabiltzen dugu argiak ipintzeko eta hortik irtetearen erori nintzen.

- **Beno, hemendik aurrera ezusterik ez orduan!**

Istripuak gertatu eta gero hasi nintzen erretiroan pentsatzen (barreak).

Ekhi Velaz

T XALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan
pintxoak, afariak
eta bokatak!

Erdikokale 13
(Ermua)

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo onddoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo onddoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

ENKARGYAK
943 030 299



'ERMUA, HARRERA HERRIA' JARDUNALDIA HILAREN 22AN

Euskal Herrira iristen ari diren errefuxiatu eta etorkinei harrera egiteko herri ekimenak sortzen ari dira han-hemenka, eta Ermuko Nazioarteko Elkartasuna eta Lankidetzak Kontseiluak uda partean Bilbon sortu zen ekimen honekin bat egingo duen harrera proiektua jarriko du abian. 'Ermua, harrera herria' da ekimenaren izena eta bi saio egingo dira. Bata abenduaren 18an egin zen, 'Etorkinen Nazioarteko Egunean' hain zuzen ere, eta gaiaren inguruan mahai-ingurua antolatuta zen. Bestea hilaren 22an egingo da, larunbata. Egun osoan zehar karpa informatibo bat jarriko dute plazan eta Ermuko Harrera Talde horren inguruko informazioa, antzerkia, bideoak... jasoko ditu. Talde honek demandatzen duena zera izanik: transitoan edo geratzeko datozenekiko gure eskuzabaltasuna, babes moralá, errelato baztertzailer eta xenofoboei kritikotasunez erantzutea, euren egoera eta migratzeko premiari beste modu batera begiratzeko sentzibilitatea... 19:00etan elkartasun ekintza bat egingo da 'Urperatutako amets gehiagorik ez' goiburuarekin, Europako migrazio politikaren biktimak gogoratzeko.

DANOBATGROUPEk Euskararen Egunean argitaratutako lehiaketak baditu irabazleak

DANOBATGROUPEk, Euskararen Nazioarteko Egunean harira, kooperatibak dituen herrietara zabaldua 'Euskara aldean, erabili lanean' lehiaketak baditu irabazleak.

On line osatu behar zen lehiaketako **erantzuna** www.danobatgroup.com/eu webgunean eta <https://info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2018.html> hiztegiaren bitartez bilatu eta erantzun guztiak zuzen erantzun ondoren, Edurne Bilbao eta Maier Leiaristi izan dira 2018ko lehiaketako irabazleak. Irabazleek Euskal Herriko landetxe batean bi gaueko egonaldia egiteko bonoa irabazi dute. "Zorionak irabazleei eta eskerririk asko parte hartzaile guztiei", adierazi dute DANOBATGROUPEkoek.

**Ermua iS TEAM, Gabonetan zientzia nagusi**

Zientzia eta teknologiaren bokazioa sustatzeko 2018ko urrian sortutako Ermua iS TEAM proiektuak fase berria hasiko du urte amaieran. Azaroaren 2 eta 3an lehen ekintzak egin eta gero, abenduaren 26, 27, 28 eta 29an Izarra Centrek eta Orbe Kardinalaren plazak tailer zientifikorak, hitzaldiak eta esperimenduak jasoko dituzte zientzia, teknologia, ingeniariaritzak, artea eta matematika (ingelerazko STEAM akronimoa) herritarrei hurbiltzeko, gazteei batez ere.

Hilaren 26an 'Scribbling machines' (makina zirriborratzaileak egitea) izeneko ikuskizun zientifikoa egingo da Izarra Centreko 4. solairuan 10:00etatik 10:30era. Gero, 11:00etatik 12:00etara TBKIDri buruzko hitzaldi zientifikoa emango dute eta 12:30etik 13:30era 'Igo eszenatokira' tailerra egingo da.

27an, bestetik, artea izango da protagonista. 10:00etatik 10:30era 'Magia hurbiletik' ikuskizuna egingo da plazan, 11:00etatik 12:00etara 'Zientzia edo magia' hitzaldia eskainiko da eta 12:30etik 13:30era 'Eszenatokian komunikazioa garatuz' tailerra.

28an matematikaren txanda iritsiko da. 10:00etatik 10:30era 'Fractal cooperatibo' ikuskizuna eskainiko dute plazan, 11:00etatik 12:00etara 'Math is in the air' hitzaldia eta 12:30etik 13:30era 'Matematikak ukitzen' tailerra.

Azkenengo egunean, 29an, mitoak desmuntatuko dira 10:00etatik 10:30era eskainiko den ikuskizunean. 11:00etatik 12:00etara hitzaldia egingo da eta 12:30etik 13:30era amaiera ekitaldia. Bertan, catering zientifikoa egongo da eta gazteek elikagaiak prestatzen ikasiko dute elementu ezberdinak erabiliz (nitrogeno likidoa, adibidez)

Jardunaldi hauetan parte-hartzea irekia eta doakoa da, eta izena emateko www.ermua.es webgunean Ermua iS TEAM-en orrian aurkitu daitekeen inprimakia bete eta dl@udalermua.net helbidera bidali edo Abiapuntun entregatu behar da.

**MARKOS GIMENO VESGA**
(2018ko abenduaren 7an)**EUSKAL BIRUSEKO LANGILE ETA KOLABORATZAILE IZANDAKOA**

Desafixuan txirrindularia irabazle

Ikusmira handia sortu zuen lagun arteko desafioa egin zen Ermuan, Anbulategitik Urko puntara nork lehenago ailegatu erronka tarteko: Aitor Gonzálezek Elorreta Goikoraino bizikletan, Jon Areitioaurtenak haraino kotxez eta ondoren bieki handik gorakoa erroberadun barik egin zuten bezala, Julen Olaizolak antxixiketan egin zuen irteera lekutik Urkora artekoa. Aitorrek 23:53, Julenek 26:26 eta Jonek 33:45 behar izan zuten euren balentria burutzeko. Posturiaren arrimora bestalde, Infreñu tabernan ze ordenatan ailegatuko zuten asmatzeko porra bat jarri zen martxan: 2 euroko 188 apustu jaso ziren eta hiru laguneren artean banatu zen saria. Merkatu plazan gero 90 lagun bazkalduz ospatu zuten.



GABONETAKO HAURKANPAINA

Antxixiketan taldeak, Anaitasuna ikastolak, Gurutze Gorriak, Txindurri taldeak, Kultur Zentruak eta Ermuko dendari eta ostalarien elkarteak hainbat ekintza antolatuta dituzte Gabonei begira.

Abenduaren 21ean, 16:30etik 20:30era, Olentzero eta Maridomingiren eskutitzen bilketa egingo da plazan.

22an, 12:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, haurrentzako trena egongo da eta 19:00etan Gabonetako kalejira plazatik.

24an, 11:00etan, 'Olentzero txiki' egongo da plazan.

Hilaren 26tik urtarrilaren 4ra, 11:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gabonetako Haur Parkea egongo da kiroldegian (sarrerak 2 eurotan).

27an, 17:00etan, 'Din, dan, don' haurrentzako ikuskizuna egingo da Ermua antzokian (4 euro).

29an, 17:00etan, 'Alizia lurralde miresgarrian' antzezlan eskainiko da antzokian (4 euro).

31an, 18:00etan, Olentzerori harrera egingo zaio plazan.

Urtarrilaren 5ean, amaitzeko, Erregeen kabalgata egingo da.



PUB YOMY

**Zubiaurre
kalearen
bihotzean**



KRABI

Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Iberikoetan
espezialistak

Mayte

Denda berria

VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

ileapaindegia

Silvia
peluquería

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336

Ez da nire arazoa

Emakumea desagertu egin zen erantzuna jaso eta gero.

-Ez da nire arazoa-, esan zioten.

Nire gurasoen sasoiari gazte aberatsek haurdun uzten zituzten emakumeekin egiten zuten bezala. Era berean, baliabide gutxi zituen jendearen artean beste kode-moral bat zegoen. Emakumea haurdun geratzen bazen, arduragabekeria horren ondorioz ia ezagutzen ez zenuen pertsona horrekin ezkondu beharra zegoen. Elizako arauetan zuten oinarria familiarengandik jasotako baloreek, eta bide bat erakusten zuten: haurdunaldia badago, ezkontza egongo da. Gaur egun laguntza behar ez duen emakume asko dago eta ez dute gizonik behar

haurrak hazi, hezi eta aurrera ateratzeko. Beste batzuk ez. Baina zerbait daukate komunean: ama ezkongabeek gizartearen aurrean erantzun behar dituzten galdera ugari eta bidegabeak. Gaur egungo gizartean daukagun oinarri matxistaren adierazle dira galdera horiek eta, desagertzetik urrun, nolabaiteko iritzi korronteez matxismo hori indartzen dute. Arazo nagusia da gure gizarte matxistak ez duela onartzen haur batek ama edo aita bakarra, bi ama edo bi aita edukitzea, besteak beste. Familiaren egituratze tradizionalak oraindik duen pisuaren ondorioz familia 'ezberdinetako' haurrek irainak eta egoera diskriminatzaileak jasaten dituzte. Beraz, familia, hezkuntza eta gizarte eremuetan familia-sistema hauek guztiak normalizatu behar ditugu. Eta familia bat, dau-



Juan Carlos Martín

kan egitura daukala, joera matxista bariko gizartean integratua egon behar da; begiradak, iruzkinak eta galderak saihestuz, min handia umeei egiten zaielako eta, gainera, umeei euren egoera anormaltzat edo arrarotzat jotzen dutelako.

-Gainera, esan didate bularrereko minbizia daukadala-, esan zuten emakumeak.

-Ez da nire arazoa-, erantzun zion gizonak.

Eta emakumea joan egin zen.

Bere haurrarekin aurrera egin eta gaixotasuna gainditu zuen emakumeari dedikatua.

“ Familia 'ezberdinetako' haurrek irainak eta egoera diskriminatzaileak jasaten dituzte ”

SAN ANTONIO
OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaia, 40 Tel. 17 00 63

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak
Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

IKASTOLA
1968tik Ermua euskalduntzen



Abenduaren 11an
Zorionak Urko! Muxu asko etxekoen partez, txapeldun! Asko maite zaitugu!



Abenduaren 29an
Ondo pasa zure urtebetetzean! Muxu handi bat Lucía eta Amatzoren partez. Maite zaitugu!



Abenduaren 16an
Zorionak Gorka!!! Abenduaren 16an 3 urte handi bete dituzu!! Patxo pila bat familia guztiaren partez!



Aiora, abenduak 19.
Aiur, urtarrilak 28.
Maier, abenduak 2.
Zorionak hirukote, pila bat maite zaituztegu!



Zorionak Irati zure 6. urtebetetzean! Muxu asko familia osoaren partez. Ondo pasa zure eguna!!



Abenduaren 4an
Zorionak Ane zure 12. urtebetetzean familia osoaren partez!!!! Oso ondo pasau maitea!!!! Musu handi bat....MUUUUAAAK

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezua: drogeten@gmail.com helbidera.

Azken eguna: **Urtarrilaren 16a.**

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTIAK / IRAKASKUNTZA / ZERBITZU TEKNIKOA

VI Centenario 19, behea
Tel. 943 17 90 37
e-maila: enter-i@arrakis.es

arral97.com
arral

Tel.: 943 17 60 75
banatzaile ofiziala

- Luis Cañas familia	- Pazo Señorans	- Txakoli Akarregi
- Añada Real	- Vicente Gandía	- Milana
- Yllera taldea	- Oriol Rossell	- La Loca Juana
- Gomez Cruzado	- Astobiza txakolina	- nitida

arral@arral97.com - Pol. Ind. Gaitondo Goikoa Parcela Pab. 1 - Mallabia

Hamburguesería
TITANIC

Pintxo dastaketa poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83

FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA

San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

MALLABIA 1958

Ermuko León Iturriagagoitiaren taillarreko beharginak, ermuarrak batzuk eta mallabitarrak asko, Trabaku Beheko tabernan, hilean-hilean ipinitako dirutxoarekin egindako bildots-janaren ostean. Atze-atzean eta gorengo Martzelo Mugarza. Tente eta ezkerretik eskumara: Leoncio Aranburu, Enrike Mugarza, Juan Aranburu, Txomin Narbaiza, Modesto Solozabal soinuarekin, Felix Iturriagagoitia, Patxi Urkidi, Miguel Amesti eta José Ramón Iturriagagoitia. Jarrita daude Angel San Martín panderoarekin, Eugenio Aranburu, Polonia Ardanza, Juli Aldalur, Jose Iturriagagoitia eta Toribio Amesti, Aurrenengo hilaran Isabeltxo Iturriagagoitia, M^a Angeles Agirregomezkorta, Milagros Totorikaguena eta M^a Isabel Iturriagagoitia txakurra oratzen eta panderoa eusten.



ERMUA 1911



Egun euritsu hartan, eleiz eta palazio arteko irteera lekuan ikusle batzuk batu ziren, bai. Desafio gogorra iragarritakoa: korrikalaria automobilaren kontra. Jokoan Areitioko gaina nork ala nor lehena hartu. Bere abarketa zuritxoekin, lasterketa guztian antxitxiketalaria irabazten joan bazen ere, Elgoibarko Gorroño baserriko semea berau, Areitio gaineko lautadan abiadura hartu eta lau erroberadunak irabazi zuen norgehiagoka.

JUANJO SANTAMARIA ANTZIA

(2018ko azaroaren 16an)

Ez zaitugu ahaztuko

MALENGO ELKARTEA



Bertso bazkaria San Pelayo Ikastetxean

Irailaren 14an, San Pelayo Ikastetxean bertso bazkaria ospatu zen, ikastetxean euskararen erabilera bultzatzeko eta kurtso berriari ongi etorria emateko. 1. eta 2. batxilergo ikasleek hartu zuten parte, baita haien irakasleek ere. Gonbidatutako bertsolariek, Jokin Alberdik eta Manu Goioganak, ikasleek asmatutako gaiei buruzko bertso izugarriak sortu zituzten, adibidez, klasean izan zituzten zailtasunei buruz; eta amaitzerakoan, beste pertsona batzuk aukeratu eta deskribatu zituzten. Azkenean, partaide guztiek bazkari atsegina batez gozatu zuten.



San Martin

Pasa den azaroaren 9an San Martin azoka ospatu genuen San Pelayo ikastetxean, 3 urte eta 16 urte bitarteko ikasleen artean. Festa, egun osoan zehar ospatu zen, goizean taloak prestatu ziren eta herri kirolak egin genituen. Arratsaldean dantza eta kanta ezberdinekin alaitu genuen giroa, erromeria eta guzti! Neska-mutilak baserriarrez jantzita etorri ziren eta festa ospatzeko giro ezin hobea sortu zen.

Gainera, zahar egoitzako 12 lagunek hartu zuten parte.

Oso egun polita izan genuen. Denon artean euskarari bultzadaxoa eman genion.



Durangoko Azoka

Abenduaren 5etik 9ra Durangoko liburu eta musika Azokaren 53. edizioa ospatu zen.

Aurten, 247 stand 439 produktu, eta 200 ekintza kultural ospatu dira zazpi espazio ezberdinetan.

Urtero bezala, San Pelayoko DBH 2.mailako ikasleak joan ziren.

Bertan, liburuak ikusi, musika entzun eta abeslari, idazle eta musikari batzuekin elkarrizketak egin zituzten.

Amaitzeko "yincana" bat egin zuten azokan zehar, taldeka proba desberdinak gainditu behar izan zituzten, guztiak oso dibertigarriak.

Goazen teleasaileko aktoreekin argazkiak ateratzea izan zen gehien gustatu zitzaiena.





LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
 48260 Ermua
 © 943 17 47 44



Zuri egokitzen den odontologia
 La odontologia que se adapta a tí

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI col. nº 1284

- P.A.D.I
- IMO
- SANITAS
- DENTYRED
- AZKARAN
- OCASO

☎ 943 17 04 04

✉ info@clinicasanpelayo.com

📍 San Pelayo Zeharkalea 5
 48260 Ermua (Bizkaia)

Proba-Leku
Neupaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

ZINEA

Hilaren 5tik 7ra
Hilaren 12etik 14ra
Hilaren 19tik 21era
Hilaren 26tik 28ra
 Zehaztu gabeko filmek.
 Ermua Antzokian.
 Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3
Hilak 10
Hilak 17
Hilak 24
Hilak 31
 Zehaztu gabeko filmek.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6
Hilak 13
Hilak 20
Hilak 27
 Zehaztu gabeko filmek.
 Ermua Antzokian.
 20:30ean.

ANTZERKIA

Hilak 18
 "Señora de rojo sobre fondo gris", José Sacristanekin.
 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15€

MUSIKA

Hilak 11
 Opera proiektzioa: Jonas Kaufmann bajo las estrellas.
 22:15en. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€

Hilak 18
 Blues kontzertua: The Black Note.
 20:00etan. Lobiano Kultur Gunean.
 Sarrera: 10€

Hilak 22
 Zezilia Deunaren kalejira.
 19:30etik aurrera.

Hilak 25
 Kontzertua: Blas Cantó. 22:15ean.
 Ermua Antzokian.
 Sarrera: 15€

UMENTZAKO EKITALDIAK

Hilaren 4ra arte
 Gabonetako haur parkea: puzgarriak, ohe elastikoak, ludoteka bideo-konsolak, jumping, tailerrak...
 11etatik 13etara eta 16etatik 20etara.
 Sarrera: 2€

Hilak 5
 Errege Magoen kabalagata (kalejira).
 18:00etatik.
 Sallabente ikastetxetik.

Hilak 19
 Haurrentzako ipuin-kontaketa. 17:30ean.
 Lobiano Kultur Gunean

Hilak 26
 Haurrentzako ikuskizuna: "Satorjator", Ene Kantak taldearen eskutik. 17:00etan. Ermua Antzokian. Sarrera: 4€

ERAKUSKETAK

Hilaren 13 arte
 Ibarrolaren Oma basoa. 18etatik 20etara.

Hilaren 14tik 27ra
 Zeramika: Buztingorri taldearen lanak. 18etatik 20etara.

BESTELAKOAK

Hilak 27
 Extremadurako txarriboda. 10etatik.
 Extremadurako zentruan.

Patxi López



**TXINDURRI
 TALDEA**
**Tokian
 tokiko**

PRO
arraindegia



**ITSASKIAK
 ARRAIN FRESKOAK
 ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
ERMUA

Infreñu
Taberna



Kardenal Orbe plaza
 943 174584
www.infretaberna.com



**MUSIKA
 ESKOLA**

- Akordeoia
- Klarineta
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardinoa
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoiaia musikala

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com



**Zu hemen zaude,
AEK ere bai**

100 euskaltegi baino
gehiago Euskal Herri osoan



EUSKARA-IKASTAROAK

**EUSKALTEGI
BERRIA**

Ermuko Kaltxango AEK

Urtarrilaren 7tik 18ra

Euskalduntzea
Azterketa ofizialak prestatzeko ikastaroak

Autoikaskuntza
Berialagun

Txandaka aritzeko aukera
%100era arteko diru-laguntzak

AZKEN EGUNAK

Zearkale 16, behea. Ermua
943 17 19 40 · 607 623 961 · kaltxango@aek.eus

KALE ANIMAZIOA: LOS DUENDES DE LA VERDAD



ABENDUAK
22
17:30 - 19:30

Ikuskizunen zikloa Eibarko kaleetan zehar. Publikoak goza dezan da helburua eta horretarako hainbat motatako kale ikuskizunek entretenimendu, dibertsio eta parte hartzeko giroa sortzen dute.

ANTZERKIA: PINOCHO GLU GLU



ABENDUAK 26
17:00
Coliseo Antzokia

Carlo Collodiren ipuin klasikoa abiapuntutat hartuta, Glu-Gluk Pinotxo dakar eszenatokira. Familia osoarentzako antzezlan da, ikasketatik komediara, antzerkitik musikalera eta dantzatik jolasera...

5€

KONTZERTUA: MIKE OLDFIELD TUBULAR TRIBUTE



ABENDUAK 27
21:00
Coliseo Antzokia

Oldfielden zuzeneko klasiko batzuk jotzen dituen eta bere diskografian ezinbestekoak diren kantuak erreparatzen dituen talde asturiar berria da "Tubular Tribute".

20€
14€
Coliseoaren laguntzako

ZINE EMANALDIAK COLISEOAN



ABENDU
OSOAN ZEHAR
Coliseo Antzokia

- La sociedad literaria y el pastel piel de patata
- Superlópez
- El Grinch
- Aquaman
- Ralph rompe Internet
... ETA GEHIAGO

Coliseoaren laguntzako
%30